2015-II-13
Número **453.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

# astekaria

## EDITORIALA

### TTIP? Ez, eskerrik asko!

**Langile klaseari erasoak nonahi eta noiznahi datozkigu. Neokapitalismok errezeta zaharrak ezarri nahi dizkigu, klase borrokaren testuinguruan idatzi nahi den kapitulu berri batean. Egunotan erabakitzen ari den Europar Batasuna eta Ameriketako Estatu Batuen artean Komertzio eta Inbertsio Transatlantikorako Ituna, TTIP ingelesezko laburduraz ezagutua, klase borrokaren beste erakusgarri da. Itunak enpresa transnazionalei egundoko agintea ematen die estatuen barneko egungo araudi eta legedi babesleak zapuztu eta gainditzeko.**

**Horiek gehiegizko babesa eta estaldura eskaintzen omen dute urtetan lorturiko lan eskubideak edota ingurugiro, hezkuntza, nekazaritza, jasangarritasuna eta abarretako politikei eta oztopo bihurtzen omen dira merkataritza librea behar bezala garatzeko. Guztiz sekretupean ematen ari dira negoziazioak, argitara emateak ekarriko lukeen erantzuna eta gizarte mobilizazioa ekiditeko asmotan. Prozedurak demokraziaren eta herritarren aurkakoak dira. Besteak beste, estatu eta inbertitzaileen artean gatazkak konpontzeko ez-ohiko epaitegi batetara eramango dira, non transnazionalen lagunek erabakiko dute auzia. Era berean, kooperazio arautzailea ezartzen da, estatuetako egungo eta etorkizuneko arautegiak baldintzatu eta beren interesetako norabidean jartzeko. Non geratzen da Legebiltzarren subiranotasuna? Non herriena? Non demokrazia? Orokorrean pentsatu eta herrikoan eragitea tokatzen zaigu. Zuzen-zuzenean kaltetuko gaituzten neurriak dira eta horien aurka jo behar dugu. Indarrean jartzen ari den eskubideak murrizteko prozedura itzela da eta aurre egin behar diogu.**

**Horren ildotik, ELAk –beste hainbat eragilerekin batera– TTIParen aurkako plataforma aurkeztu du, eta datozen hilabeteetan hamaika ekimen egingo ditugu. Argi eta garbi esaten beharra dago: TTIP ez! Eskerrik asko.**

**Lankidetu!**

### Amaia Aierbe, responsable de los servicios jurídicos, explica la sentencia pactada con la fiscalía para evitar cualquier riesgo de prisión para cuatro responsables sindicales de Ibaizabal-Nerbioi

# "DEFENDEMOS LA HONESTIDAD DE LOS MILITANTES EN EL CONFLICTO DE ACHA"

Amaia Aierbe defiende en esta entrevista la honestidad y el trabajo que desarrollaron los militantes de ELA en Ibaizaba-Nerbioi durante el conflicto laboral sucedido en la empresa de transportes Tomás Acha S.L, situada en Llodio. En este sentido, Aierbe destaca que estamos ante un conflicto socio-laboral que se inició a comienzos del año 2012 y que respondía exclusivamente a razones e intereses laborales, a causa del impago de salarios y el ERE por despidos por parte de la empresa con sus trabajadores/as.

**-La pasada semana los medios de comunicación se hacían eco de una sentencia condenatoria contra cuatro sindicalistas de ELA por un delito de amenazas. ¿Podrías contextualizar y explicar los hechos que han derivado en esta sentencia?**

-Tenemos que remontarnos al 2 de marzo de 2012. Ese día la Guardia Civil detenía en el local de ELA en Basauri a cuatro militantes de nuestra organización, acusados de un presunto delito de extorsión y amenazas. La detención se produjo en el momento en que uno de los propietarios de la empresa de transportes Tomás Acha S.L., de Llodio, hacía entrega, supuestamente, de la cantidad que adeudaba a sus trabajadores/as, para que ELA se la hiciese llegar. Fue un montaje en toda regla con el objeto de criminalizar al sindicato.

Casi dos años más tarde, la Audiencia Provincial de Bizkaia se ha pronunciado. Ha condenado a los cuatro militantes de ELA a un año de cárcel por "amenazas condicionales" en una sentencia pactada, lo que ha evitado la posibilidad de una pena mayor que hubiera conllevado el riesgo de ingreso en prisión. La pena de un año de cárcel ha sido sustituida por una multa.

**-¿Qué es eso de una sentencia pactada?**

-Es un acuerdo al que llega el sindicato con la fiscalía. Tras la instrucción judicial, la fiscal imputaba a los cuatro afectados un delito continuado de amenazas condicionales. Por tanto, existía un riesgo real de una sentencia condenatoria que supusiera cárcel para nuestros militantes. Había que ser prácticos: el sindicato protege a su gente y no podía permitir, de ninguna manera, que eso pasara. Ese es el punto de encuentro al que hemos llegado para evitar el riesgo de cárcel para nuestros militantes.

**-El sindicato ha estado en todo momento con sus militantes.**

-ELA ha reiterado y reitera su radical confianza en estos militantes; por eso los ha defendido, amparado y protegido, y ha logrado un acuerdo con la fiscalía.

Lo sucedido el 2 de marzo de 2012 fue una encerrona con la que se ha intentado amedrentar y criminalizar al sindicato, cuyo único delito ha sido defender los derechos e intereses de los trabajadores/as de Tomás Acha S.L. de Llodio. El único objeto era dar traslado a los trabajadores de las indemnizaciones que se habían pactado.






**-¿Qué crees que deberíamos aprender de este conflicto y sus derivadas judiciales?**

-Hace ya tiempo que los problemas de origen social o laboral son abordados como desórdenes públicos, criminalizando a quienes los protagonizan. La persecución penal de las y los sindicalistas se ha incrementado.

Actuaciones típicas en el pasado hoy en día son perseguidas vía administrativa y vía penal, y las instrucciones dadas tanto a las distintas policías como al ministerio fiscal son las de ser inflexibles. Asimismo, iniciativas como la Ley de Seguridad Ciudadana no hacen sino aumentar la capacidad intervencionista y coercitiva de la policía.

En este contexto, tenemos que pensar y planificar muy bien nuestras actuaciones ante los diferentes conflictos para que sirvan a los objetivos que se pretenden.

***ELAk berretsi egin nahi du bere militanteengan duen erabateko konfiantza. Horiek defendatu eta babestu egin ditu, eta fiskaltzarekin akordioa lortu du eurentzat ondorioztatu zitekeen edozein kartzela arriskua ekiditeko. Era berean, bere militanteen eta sindikatuaren zuzentasunean eta izen onean berresten da***

## EUSKAL HERRIKO ESKUBIDE SOZIALEN KARTAK GARATUTAKO PROGRAMA SOZIALA

# HONA GURE ALTERNATIBAK!

**Aurreko Astekarian aipatu genuen Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta ekimenak Programa Soziala garatu duela, bestelako gizarte eredu bat lortu asmoz hainbat neurri eta proposamen jasotzen dituen aldarrikapen taula.**

**Hona hemen Programa Soziala, euskaraz. Gazteleraz ere eskuratu liteke ELAren –*ela.eus*– zein Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartaren –*eskubidesozialenkarta.com*– web ataletan eta ELAko egoitza guztietan.**




Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta sinatzen dugun erakunde sozial eta sindikalek bizitzaren jasangarritasuna erdigunean kokatuko duen gizarte eredua defendatzen dugu. Norabide horretan funtsezko aurrerapausoa litzateke dokumentu honetan jasotzen diren neurriak hartzea. Halaber, ziur gaude gure helburuak lortzeko mobilizazioa ezinbestekoa dela. Aliantza sindikal eta sozial sendoa behar dugu, izaera kritikoarekin, proposamenak egin eta lehentasunak adosteko gaitasunarekin. Karta funtsezko tresna da, Euskal Herrian ezartzen ari diren politikak errotik aldatzeko beharra du abiapuntu, eta gizarte eredu alternatiborako gure proposamena jasotzen du.

EAEko eta Nafarroako Foru Erkidegoko esparru arauemaileek bermatu eta sustatu behar dute Kartan jasotzen diren eskubideak Hego Euskal Herrian (HEH) egikaritu ahal izatea. Eskubide Sozialen Kartak gai ekonomiko eta sozio- laboraletan erabakitzeko erabateko eskumena eskatzen du, eta gure tresna propioen eraikuntza (arauemaileak, instituzionalak etab.). Subiranotasun prozesu eraginkor hau gauzatzea gure lanaren eta enplazamendu politikoaren parte da. Erabakitzeko ahalmen hau garrantzizko gai guztiei zabaldu behar zaie, herritarrei eragiten dieten gaiei, eremua edozein delarik ere.

Horrekin batera instituzioei exijitzen diegu dokumentu honetan jasotzen diren neurri zehatzak berehala har ditzatela. Konpromiso zehatzak hartu behar dira eta beharrezko finantza baliabideekin hornitu, konpromiso horiek bete daitezen.

Ezartzen ari diren politika antisozialen ondorioz biztanleriaren pobretze orokortua ematen ari dela salatzen dugu. Aberastasunaren banaketa gero eta bidegabeagoa da. Langabezia, prekarietatea, pobrezia eta desberdintasun ekonomiko eta sozialak areagotzen ari dira, ez direlako egiten egoera irauli ahal izateko politikak.

Salatzen dugu Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta EAEko hiru Foru Aldundiak ez direla ari politika publikoen, aurrekontu politiken eta politika fiskalen orientazioa errotik aldatzeko beharrezko neurriak hartzen. Inongo instituziotan ez da ireki benetako parte hartzerako espaziorik ere, ez zerga-politikari heltzeko, ez aurrekontuak lantzeko.

Ustelkeria ez dago gure errealitatetik at. Adibide argia dugu Nafarroan. Bertan gobernu desberdinek, erregimeneko kide desberdinen lankidetza edo babesarekin, diru-kutxa publikoak hustu egin dituzte, CAN arpilatu, alferrikako lan faraonikoekin etorkizuna hipotekatu, kultur eta ingumen-ondarearen zati handi bat suntsitu, memoria berreskuratzea oztopatu edo zerbitzu publikoak narriatu dituzte. Apenas egon den Nafarroako Gobernuan presidenterik korrupzio praktikak egin izanaren susmopetik salbu.

Bestalde, EAEn, Kutxabanken pribatizazio prozesua ikusi dugu. Esparru politikoaren gehiengoak, zenbait sindikaturen lankidetzarekin, elite endogamiko baten eskutan utzi du arabar, bizkaitar eta gipuzkoarren ondarea. Interes partikular eta alderdikoiak herritarren interes orokorren gainetik jarri dira, modu lotsagarrian.

Posible eta beharrezkoa da langabezia, prekarietatea, pobrezia eta desberdintasun sozialak larriagotzen ari diren politika hauek aldatzea. Elite politikoak, gehienetan botere ekonomiko eta finantzieroarekin bat eginda, oinarrizko gai hauetan duen erantzunkizuna saihestu egiten du. Bere irudiak bakarrik kezkatzen du, eta irudi hori propagandarekin eta gaizki deituriko elkarrizketa sozialeko mahaia bezalakoetan prebendak banatuz garbitu nahi du.

Hego Euskal Herriko instituzioetako 2015eko aurrekontuen eztabaidak erakutsi du nola, praktikan, alderdi politikoek alternatiba errealen eztabaida ekiditen duten, aldaketa soziala eragotziz.

Gertatzen ari dena arbuiatzea ez da nahikoa, egoera errotik aldatu behar da eta eredu sozio-produktibo berri bat eraiki Euskal Herrian, oinarrizko beharrak asetzea oinarri duena; aberastasunaren birbanaketa; enplegua eta lanak; eskubideen unibertsaltasuna; sektore publikoaren lidergoa; interes kolektiboaren lehentasuna indibidualismoaren gainetik; politika ekonomikoaren ingurumen-eraginkortasuna eta eraginkortasun soziala; emakume eta gizonen arteko berdintasuna...

Horregatik guztiagatik, Eskubide Sozialen Kartarekin konprometitu garen erakunde sozial eta sindikalek Hego Euskal

**Herriko instituzioei eskatzen diegu:**

### AURREKONTU ETA POLITIKA FISKAL ETA SOZIALEAN ALDAKETA

**Espainiako Gobernuak onartu dituen aurrekontu mugapen nahiz murrizketak ez onartu. Hego Euskal Herriko instituzioek ezarritako murrizketak atzera bota.**

- Euskal administrazio publikoek, izan inposaketa dela medio, izan erabaki propioen bidez ezarritako murrizketak atzera bota.
- Hego Euskal Herriko instituzioek ez dituzte ez murrizketa ezta mugapen horiek ezarri behar.
- Espainiako Gobernuak ezarritako eskubide nahiz prestazioen murrizketak konpentsatu (pentsioak, langabezia, e.a.).
- Ezberdintasun sozialak areagotzen dituzten Hego Euskal Herriko instituzioek ezarritako murrizketa oro bertan behera utzi.

**Ondasunaren banaketa bidezkoagoan lagunduko duen politika fiskal justu eta progresiboa.**

- Goi mailako nahiz kapitalaren errenten mesedetan onartutako zerga murrizketak bertan behera utzi (PFEZ, Elkarteen Zerga, Ondarearen Zerga, e.a.).
- Diru-sarrera mota ezberdinek zerga berdinak ordain ditzatela.
- Gehienez bost urtetan lanarenak ez diren errenta guztiak gainbegiratzea, Ogasunez Ogasun ustelkeria fiskalaren kasuak azalaraziz.
- Paradisu fiskaletan kokatutako pertsona fisiko nahiz juridikoen jarduera ekidin.

**Sektore sozial estrategikoak bermatzeko zerbitzu publiko propioak garatu.**

Horretarako osasunean, hezkuntzan eta zerbitzu sozialetan gastu publikoa handitzea ezinbestekoa da, lehen urrats gisa Europar Batasunaren bataz bestekoarekin parekatuz.

**Langabezia eta pobreziaren hazkundeari erantzuteko, prestazio sozialak handitzea.**

- Prestazio duina langabezian dagoen pertsona ororentzat.
- EAEn eta Nafarroan prestazio sozialak arautzen dituzten legeak aldatzea, inor ez dadin pobreziaren mugaren azpitik geratu.

**Honako eskubide hauek legez ezarri:**

- Menpekotasun egoera ororen estaldura, herrialde guztietan baldintza berberetan emango den kalitatezko zerbitzu publikoaren bidez.
- 0-3 urteko zikloan nahiz gainerako hezkuntza mailetan (unibertsitatea barne) eskatzen den bezainbeste plaza eskaini, sare publikoan eta doan.
- Haurtzaroaren nahiz gazteriaren babes ekonomikoa.
- Alokairu sozialeko etxebizitza eskuratzeko aukera bermatu eta etxebizitza hutsen gaineko zerga ezarri.

**Gure eredu sozio-produktiboaren antolaketan aitzindari izango den sektore publiko indartsua sustatu.**

Euskal sektore publikotik arreta eta zainketarako eskubideak nahiz zerbitzu publikoen unibertsalizazioa bermatu; industrian inbertsio publiko zuzena bultzatu; energiaren ekoizpen eta komertzializazioaren gaineko kontrol publikoa, trantsizio eta burujabetza energetikoa ahalbidetuko duten ekoizpen eta jarduera jasangarriak bultzatuz; sistema finantziero publikoa sortu.

### KALITATEZKO ENPLEGUA SORTZEKO POLITIKA

Kalitatezko enplegua defendatu, sortu eta banatuko duen politika ezarri:

- Soldaten hobekuntza nabarmena, bereziki baxuenak diren horiena.
- Ordezkaritza sindikalaren gehiengoaren adostasunik gabe ezingo da Enplegu Erregulazio Espedienterik aurrera eraman.
- Lanaldia 35 ordura murriztea.
- Lan nahiz negoziazio kolektiboaren erreformak atzera bota.
- Aparteko orduak ezabatu.
- Jubilazio adina aurreratu.
- Lanbidearteko Gutxieneko Soldata berria ezarri, Europako Karta Sozialaren ildoan.

### JENDARTEAREN PARTE HARTZEA BERMATU

**Instituzio guztiak berregituratu, politika ororen diseinu, erabaki hartze eta kontrolean jendartearen parte hartze demokratikoa ahalbidetzeko.**

- Politika publikoen ebaluazio, kontsulta eta erreferendum lotesle prozesu errealak ezartzea ezinbestekoa da.

carta de los derechos sociales euskal herriko eskubide sozialen karta
#m14aldaketasoziala

■ Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua nahiz Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundietan eragile sindikal eta sozialen parte hartzea ahalbidetuko duten bitartekoak ezarri.

**Zorraren gaineko auditoria.**

Zorraren gaineko herri auditoria sustatu eta ahalbidetu, zilegitzat jotzen ez den zatia ordaintzeari uko eginez. Prozesu honek soziala behar du izan eta instituzioekin elkarlanean garatu beharra dago, beharrezko informazio eta prestakuntza emanez.

## BIZITZAREN JASANGARRITASUNA ETA ONGIZATEA

**Pertsonak, Herriak eta natura lehenetsi beharra dago multinazionalen etekinen gainetik.**

■ Bizitzaren sostengua lehentasun izango duen, pertsona eta herrien zerbitzura egongo den eredu sozioekonomiko baten alde.

■ Pertsona nahiz herrien arteko elkartasun, justizia eta berdintasunaren alde.

■ Eskubide sozial, laboral, kultural eta ingurumenari dagozkionak bermatu ahal izateko, geure eredu ekonomiko, sozial eta politiko propioa erabakitzeko eskubidea.

■ Instituzio guztiek TTIP delakoa arbuiatu dezatela.

■ Energia berriztagarrien ekoizpena saritu, frackinga nahiz bere ikerketa gerarazi eta debekatuz; garraio publiko kolektiboa eta intermodalitatea sustatu; hondakinen murrizketa, berrerabilera eta birziklapena bultzatu; elikadura burujabetza...

**Bizitzaren jasangarritasuna eta ongizatea bermatzeko, zainketa lanak sozialki aitortu eta banatu.**

Lanaren gaineko ikuspegi integralean oinarritutako eredu ekonomiko eta sozial berria eraiki, pertsonek berezkoa duten interdependentzia aitortu eta herritar ororen bizitza duina izateko eskubidea bermatuko duen lanaren gaineko ikuspegi integralean oinarritutakoa.

Etxeko eta zainketa lanen aitortza politiko eta soziala, lan horiek gizon eta emakumeen artean birbanatzeko neurriak hartuz. Horretarako geure jendartean nagusi diren familia, emakume eta gizon ereduak birformulatu nahiz zerbitzu publikoak garatu beharra dago.

**Baldintza laboral eta sozialen berdintasuna bermatu, genero, adin, sexu joera, aniztasun funtzional edota nazionalitateengatiko diskriminazio oro ezabatuz.**

## DEMOKRAZIA ETA ESKUBIDE KULTURALEN DEFENTSA ETA HORIEKIKO KONPROMISOA

**Askatasunen murrizketari ez.**

Eskubide demokratikoen murrizketa nahiz sistema auzitan jarri eta Kapitalaren nagusikeriari aurre egiten dion mugimendu sindikal eta sozialaren kontrako errepresioa etengabea da. Hamaika erreforma eta neurri hartzen ari dira norabide horretan. Instituzioek protesta eta mobilizaziorako eskubide demokratikoa defendatu behar dute, berau murrizten duten neurriak arbuiatuz.

**Emakumeen kontrako bortizkeriari aurre egin.**

Emakumezkoek pairatzen duten zanpaketa eta bortizkeria ekiditeko neurri eta politika transbersalak ezarri.

**Euskara eta kulturaren normalizazioa.**

■ Euskal Herri osoan euskararen ofizialtasuna exijitu eta Nafarroan Vascuenceren Legea bertan behera utzi.

■ Euskararen normalizazio osoa eta bizitzaren alor guztietan euskaldunon hizkuntza eskubideen bermea xede izango duen hizkuntza politika berri baten garapena.

■ Administrazio Publikoetan nahiz eremu pribatuan benetako plan eta neurri benetako eta normatiboak hartu, herritarrek zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko eskubidea eta lantokian ere euskaraz harremantzeko eskubidea bermatzeko.

■ Egungo hizkuntza ereduen sistema gainditu, ikasleria osoari euskararen ezagutza nahiz komunikazioa bermatzen ez dien aldetik.

■ Geure ondare inmateriala babestu. Gure jendartea aberasten duen sormena bultzatu. Aniztasuna eta elkarbizitza sustatu.

**Arlo ekonomiko nahiz sozialean ahalmen normatibo osoa eskuratzeko burujabetza prozesua sustatu.**

Bestelako jendarte eredua defendatzen dugunontzat, eremu ekonomiko eta sozialaren gainean erabakitzeko ahalmena funtsezko helburua da.

Aipatu dugunez, mobilizazioa da neurri hauek posible egiteko gure bidea. Horregatik, euskal jendarte osoari dei egiten diogu, hemen eta orain, prozesu hau bere egin dezan, euskal herritargoari agiri honetan jasotzen diren eskubide sozialak bermatuko dizkioten erabaki politiko eta instituzionalak har daitezen.

*El Programa Social es una magnífica oportunidad para interpelar a nuestras administraciones y exigir su cumplimiento; tenemos alternativas para lograr otro modelo social*

# LABURREAN / BREVES

## • Sistema corrupto y escándalo en Kutxabank




En opinión de Mikel Noval, responsable de política social, los últimos sucesos en Kutxabank son una evidencia más de que estamos ante un sistema corrupto. "Por una parte está la citación tanto de Mario Fernández –anterior presidente– como de Mikel Cabieces –representante del PSE-EE en el consejo de administración– por parte de la fiscalía anticorrupción en relación a unos supuestos pagos irregulares realizados al despacho de abogados de Cabieces, y la posterior petición de la fiscalía de imputarlos por varios delitos. En nuestra opinión, las declaraciones realizadas ante la jueza dejan en evidencia que estamos ante un sistema corrupto. Además del, digamos, *pago irregular* realizado por Fernández en beneficio de Cabieces, justificado por unas supuestas leyes no escritas, el propio Cabieces desveló ante la jueza que cobraba de algún otro lugar, sin mencionar la procedencia. Ahora se ha sabido que *ese lugar* era Iberdrola".

"Este suceso es escandaloso y revelador de la connivencia de las grandes empresas con aquella clase política que le sirve. Sí, le sirve. No debe olvidarse que en el traspaso de poderes entre el Gobierno de Zapatero y de Rajoy se *traspapeló* una documentación por la cual debía reclamarse a las eléctricas 3.000 millones de euros. Nadie sabe qué sucedió para que esa documentación no apareciese. El hecho es que las eléctricas –Iberdrola entre ellas– se ahorraron esos 3.000 millones de euros. Todos estos hechos desvelan un sistema corrupto en el que, bajo la apariencia de legalidad, se compran voluntades para que la política defienda sus intereses".

En opinión de Noval, la subida salarial del actual presidente Kutxabank, Gregorio Villalabeitia, en un 73% –hasta los 800.000 euros anuales– es otro capitulo más de ese sistema podrido. "El aumento de retribuciones se hace con el beneplácito del Consejo de Administración de Kutxabank y, evidentemente, con el de los partidos políticos que están presentes en el mismo. Para la ciudadanía, recortes y sacrificios, para los amigos sueldos indecentes con su aquiescencia. No tienen vergüenza. Es intolerable, y más teniendo en cuenta que los últimos años Kutxabank ha destruido más de mil puestos de trabajo".

## • ELA no tiene nada que reprochar a Angel Toña sobre su actuación en el proceso concursal de Fundifes

El 4 de febrero –seis días antes de tomar posesión en el cargo– el nuevo Consejero de Empleo del Gobierno Vasco, Angel Toña, fue inhabilitado por la Audiencia de Bizkaia para ejercer como administrador concursal durante 18 meses por su actuación en el proceso de la empresa Fundesa. En opinión de Joseba Villarreal, responsable de negociación colectiva, nuestro sindicato no tiene nada que reprochar a Angel Toña sobre su actuación en el proceso concursal de Fundifes.

"El conflicto en la empresa Fundifes ha sido y es muy complicado. Durante su desarrollo han chocado intereses muy contrapuestos, entre quienes defendíamos un proyecto industrial y quienes preferían una salida especulativa con los terrenos de la empresa. En ese difícil contexto los administradores concursales, entre los que se encontraba Ángel Toña, decidieron tomar las decisiones necesarias para tratar de salvar ese posible proyecto industrial".

"Más allá de la opinión que nos merecen los límites objetivos que el Gobierno Vasco impone y que impiden llevar a cabo otra política económica y social –añade Villarreal–, desde ELA no encontramos motivos de reproche a su actuación en este tema, encaminada, en aquellas circunstancias, al mantenimiento del máximo empleo posible. Cuestión esta última que, desgraciadamente, no fue posible".

## • ELA propone la convocatoria de más paros en Lanbide

Representantes de ELA se concentraron el 10 de febrero en Gasteiz para denunciar la situación de Lanbide; la protesta se hizo coincidiendo con la reunión de la mesa negociadora. ELA exigió la retirada de la propuesta de Relación de Puestos de Trabajo elaborada por el Gobierno Vasco, y propuso la convocaría de más jornadas de paro.




Esta semana está previsto presentar junto al resto de sindicatos con representación en Lanbide un nuevo calendario de movilizaciones.

**Leire Txakartegi critica la nueva Ley de Mutuas que entró en vigor el 1 de enero del 2015**

# "OTRO PASO PARA PRIVATIZAR LA SANIDAD PÚBLICA"






El 1 de enero entró en vigor la nueva Ley de Mutuas, aprobada en el Parlamento español con los votos favorables de PP, CiU y PNV. Leire Txakartegi, responsable de salud y seguridad laboral, critica esta ley, pues considera que es un nuevo paso en el camino emprendido en favor de la privatización del sistema público de salud.

**-ELA se muestra en contra de la nueva Ley de Mutuas. ¿Por qué?**

-Esta reforma extiende aún más el campo de acción de las mutuas y supone un paso más en el proceso de privatización del sistema público de salud. Con la excusa de controlar los niveles de absentismo, la gestión de la totalidad de las bajas de las y los trabajadores se va derivando del sistema público al sistema mutual. El cambio de denominación no es baladí. De llamarse *Mutuas de Accidentes de Trabajo y Enfermedades Profesionales* pasan a ser *Mutuas colaboradoras con la Seguridad Social*, es decir, se *oficializa* la ampliación de su actividad a la gestión de las contingencias comunes.

A partir de ahora las mutuas van a contar con más instrumentos para intentar acortar dichas bajas desde el primer día: serán informados de la baja desde el inicio por parte de los servicios públicos de salud; pueden llamar a reconocimientos médicos a los que el trabajador o trabajadora deberá acudir si no quiere perder la prestación; podrán emitir propuestas de alta médica a los servicios públicos de salud...

Hasta ahora, si el personal médico del sistema sanitario público no contestaba, el alta no se convertía en definitivo. Con esta reforma, si no hay contestación en cinco días, pueden pedir la intervención de la Inspección del INSS, que estará obligada a contestar en cuatro días.

En los últimos años las mutuas han ido asumiendo cada vez más competencias. Sólo les falta dar altas médicas. De hecho, ésta es la histórica aspiración de la patronal y no pararán hasta conseguirlo.

**-¿Qué conciencia tendrá la nueva ley para las y los trabajadores?**

-A partir de ahora aumentará la desprotección de las y los trabajadores frente a los abusos de las mutuas. Estas entidades actúan bajo criterios exclusivamente economicistas frente a la función pública que tienen encomendada legalmente, que es la de velar por la salud laboral de las y los trabajadores de las empresas asociadas.

Además es importante destacar que se cuestiona la profesionalidad de las y los médicos de Osakidetza y Osasunbidea. En la práctica, serán las mutuas las que supervisen el trabajo del personal médico del sistema público, que se verán sometidos a una gran presión para que respondan a las propuestas de alta en el menor plazo posible, en una situación en la que su carga de trabajo ha aumentado de forma considerable como consecuencia de los recortes aplicados.

**-La patronal debe estar muy contenta…**

-Es evidente que sí. No tenemos que olvidar que las mutuas son entidades patronales gestionadas por las empresas adscritas a las mismas y sus equipos directivos son nombrados por el mundo empresarial. Esto explica su connivencia con las y los empresarios a la hora de interpretar y aplicar la normativa correspondiente en todas y cada una de las decisiones que adoptan. Un claro ejemplo de esto lo tenemos en la figura del señor Lujua, presidente de Confebask y gerente a su vez de Mutualia, la mutua principal de la CAPV.

**-¿Qué propone ELA ante esta situación?**

-Lo primero es emplazar a los Gobiernos de la CAPV y Navarra para que desarrollen las políticas públicas necesarias para defender un sistema público e integral de salud –sobre el se tiene competencia exclusiva– que abarque la prevención y la reparación de los daños a la salud, tanto en el trabajo como fuera de él y que proteja del mismo modo a quien tenga empleo y a quien no. Para ello es necesario no colaborar con las mutuas –a fin de garantizar que Osakidetza y Osasunbidea primen el cuidado de la salud de la ciudadanía por encima de criterios economicistas– y ejercer el control necesario sobre las mutuas que actúan en nuestro territorio.

Es imprescindible exigir y desarrollar un marco propio de protección social que incluya la plena competencia en materia de Seguridad Social, para así impedir que el INSS interfiera en nuestro sistema público de salud. Para ello sería necesario solicitar que los excedentes de los fondos de las mutuas que actúan en la CAPV y Navarra vengan aquí directamente, para poder decidir sobre su destino en nuestro ámbito.

**-¿Qué podemos hacer para hacer frente a esta ley? ¿Cómo se puede parar sus efectos?**

-La única vía efectiva para parar esta reforma es la negociación colectiva. La reforma otorga mayores competencias a las mutuas en la gestión de las contingencias comunes en aquellos casos en que dichas contingencias hayan sido asumidas por las mutuas.

Quien elige cómo y con quién contratar es el empresario o empresaria, aunque tiene la obligación de consultar a la representación sindical, que deberá emitir un informe. Aquí tenemos una vía para intentar que la gestión de las bajas por enfermedad común siga en el sistema público o vuelva a él, en caso de que haya sido trasladado a una mutua.

Desgraciadamente, a día de hoy son mayoría las empresas que han contratado a una mutua para esta labor, pero si incorporamos este tema en la negociación colectiva y luchamos por esta materia tan importante para la salud de las y los trabajadores, conseguiremos parar esta reforma en las empresas.

Desde ELA seguiremos trasladando a la negociación colectiva el mantenimiento o la reversión de las contingencias comunes al sistema público de salud.

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

Franqueo concertado
nº 08/207

ELA astekaria
Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66
Dep. legal BI-199-00
www.ela.eus